



JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,

ZIURTATZEN DUT: Barrundiako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2019ko azaroaren 14an, **499** Zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esaten duena:

IKUSIRIK: 2019ko Aurrekontu Orokorretan, Barrundiako udalerrian errolatutako herritarrei euskara ikasketak garatzeagatik beken emakidaren oinarriak onartu ziren. Horiek emateko honako baldintza hauek bete behar ziren: Barrundian errolatuta egotea eta euskara eskoletan ehuneko 75etik gorako asistentzia egiaztatzea edo, hala badagokio, HABE edo gaitasun probak egiaztatzen dituen beste edozein organismo ofizialetan matrikulatuta dagoen ikastaroa gainditu izana egiaztatzea.

Diruz lagundu beharreko ikasturtea 2018-2019 dagokionari da.

Oinarri horiek 2019ko urriaren 09ko (117. zenbakia) Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

KONTUAN HARTUZ: Deialdia arautzen duten oinarrietako 4.2ak xedatutakoaren arabera, eskaria eta dokumentazioa 2019ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Barrundiako Udalaren erregistro orokorrean.

GERTUA IZANIK: Iker Guridi Fernández de Olano jaunak, epean eta era egokian, 2018-2019 ikasturteari dagokion beka eskaria aurkeztu du.

IKUSIRIK: Udaleko Hizkuntza Normalizatailearen Teknikariak 2019ko azaroaren 08an luzatutako txostena.

KONTUAN HARTUZ: Indarrean dauden Aurrekontu Orokorretako 335.480.001 partidaren aurrekontu-zuzkidura dago.

ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENENGOA.- Iker Guridi Fernández de Olano jaunari, 2018-2019 ikasturtean euskara ikasketak garatzeagatik beka luzatzea. Beka horren zenbatekoa 359,10 €takoa da.

BIGARRENA.- Beka berehala ordaintzea 335.480.001 partidaren pentzutuan.

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau interesdunari jakinaraztea.”

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut, onetsi eta zigilitua, Ozaetan 2019ko azaroaren 14an.

